



I. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

Bizkaiko Foru Aldundia

Ogasun eta Finantza Saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren 59/2025 FORU DEKRETUA, ekainaren 12koa, lanaren etekinei pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ordainketarako aplikatuko zaizkien atxikipen-ehunekoak aldatzen dituen eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudia zenbait alderditan aldatzen duena.

2025eko apirilaren 22ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Bizkaiko Lurralde Historikoko tributu-sistemaren berrikuspen fiskalerako neurriak onartzen dituen apirilaren 9ko 2/2025 Foru Araua argitaratu zen.

Zioen azalpenean adierazitakoaren arabera, berrikuspen fiskala funtsezko 6 erronkatan dago egituratuta; horietatik bosgarrena foru-dekretu honen xede diren gaiekin zuzenean dago lotuta eta progresibotasunari dagokio. Horren bidez, tributu-karga egokitu egiten da karga ordaindu behar duenaren gaitasun ekonomikora, eta errenta baxuenak babesten dira horrela.

Erronka hori pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan oinarritu da, zerga hori baita tributu-sistemaren birbanaketa-efektua lortzeko eragile nagusia.

Beraz, lan pertsonalaren hobariaren konfigurazio berria nabarmendu behar da, egokitu baita lanbidearteko gutxieneko soldataren parekoa edo txikiagoa den soldata jasotzen duen edozein pertsonak zerga horretan kuota nulua lor dezan. Hala ere, talde kaltebera jakin batzuentzako hobari-ehuneko handituek bere horretan jarraitzen dute.

Aurrekoari hertsiki lotuta, zergaren foru-arauaren 102. artikuluan, urteko 20.000 euroko muga bakarria ezarri zaie lan-etekin gordinei banakako tributazioan, eta muga hori baterako tributazioan aplikatuko da, horrelako etekinak lortzen dituzten zergadun bakoitzari dagokionez. Hortik aurrera, aitortzeko betebeharra dago, eta urteko 1.600 euroko muga mantentzen da kapitalaren etekin gordinetarako eta ondare-irabazietarako, kasu bi kasuetan salbuetsiak barne.

Aurreko guztia osatzeko, lan pertsonalaren ondoriozko etekinei aplikatu beharreko atxikipen-ehunekoen taula berri bat aplikatu behar da.

Atxikipenei dagokienez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauak konturako ordainketei eskaintzen die XII. tituluko II. kapitulua, eta zehatzago azaltzen dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudiaren VII. tituluaren (erregelamendu hori Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 8ko 47/2014 Foru Dekretuaren bidez onartu zen). Ondorioz, araudi horren 88. artikulua aldatzen da, 2025eko uztailaren 1etik aurrera aplikatu beharreko atxikipen-ehunekoen taula berria sartzeko.

Era berean, eta aitortzeko betebeharrari dagokionez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudiaren 73 bis artikulua ere eguneratu da, eta edukirik gabe utzi da 73 ter artikulua, zergaren foru-arauaren 102. artikulua aldaketa horren ondorioz. Izan ere, zergaren kudeaketa errazteko, kasu zehatz batzuetan aitortzea egiteko betebeharra ezabatzen du, eta, horrekin batera, aitortzen laburtua egiteko aukera.

Azkenik, progresibotasunaren erronkaren barruan, eta azken ekitaldietan aplikatu diren zuzeneko zenbatespen erraztuko modalitate berezietan jarduera ekonomikoen etekin garbia zehazteko aplikatu daitezkeen portzentaje handituei 2025. urteaz geroztik ezartzen zaie izaera iraunkorarekin bat etorritik, nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueren errendimendu garbia zehazteko aplikatu beharreko ehuneko finkatzen da. Osagarri gisa, eta gure lurraldeko nekazaritza- eta abeltzaintza-ustategien iraunkortasuna eta ustategia osatzen duten pertsonen belaunaldien arteko erreleboa bultzatu nahi dituen neurri gisa, % 35eko ehuneko aplikatzeko aukera ezarri da, aurretik aplikatzen zen ete-



kin garbia zehazteko, erretiro-adinetik gertuen dauden zergadunei langile autonomoen araubide berezian kotizazio handiagoak egiteko aukera emanaz.

Adierazi behar da foru-dekretu honen izapidetzea foru-arau honetan xedatutakoaren arabera egin dela: Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa.

Gainera, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuak jasotzen dituen izapide guztiak bete dira.

Azaldutakoa dela bide, Ogasun eta Finantza Saileko foru-diputatuak proposatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak eztabaidatu eta onetsi ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu Bakarra.—*Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudia aldatzea*

Lehenengoa: 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, zenbait aldaketa egiten dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudian (Bizkaiko Foru Aldundiaren 2014ko apirilaren 8ko 47/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen araudi hori), eta hona zer aldaketa egiten zaizkion:

Bat. 33. artikuluko lehenengo paragrafoa berridazten da eta honela geratzen da idatzita:

«Zergaren foru-arauko 28. artikulua 2. apartatua xedatutakoa garatzeko, nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueren etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztuaren bidez kalkulatu behar denean, 28. artikulua 1. apartatuko b) letran aipatutako ehunekoa 100eko 70ekoa izango da».

Bi. Berridatzi egin da 73 bis artikulua, eta honela geratu da idatzita:

«73 bis artikulua.—*Aitorpena egin behar diren salbuespena*

1. Ez dute aurkeztu behar pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitorpenik errentak iturri hauetatik soilik lortzen dituzten zergadunek:

a) Urteko 20.000 eurora bitarteko lan-etekin gordinak, banakako tributazioan.

Muga hori baterako tributazioan aplikatuko da, honelako etekinak lortzen dituzten zergadun bakoitzari dagokionez.

b) Kapitalaren etekin gordinak eta ondare-irabaziak, salbuetsiak barne kasu bietan, guztira urtean 1.600 euro baino gehiago ez badira. Letra honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko talde-inbertsioko erakundeen akzioen edo partaidetzen eskualdaketek edo itzulketek sortzen dituzten ondare-irabaziei, baldin eta araudi honetako 96. artikulua 2. apartatua ezarritakoaren arabera atxikipen-oinarria ez bada zehaztu behar zerga-oinarrian integratu beharreko zenbatekoa aintzat hartuta.

2. Aurreko apartatua ezarritakoa gorabehera, kontura egindako ordainketen itzulketa lortzeko ezinbestekoa izango da autolikidazioa aurkeztea.»

Hiru. Edukirik gabe geratzen dira 73 ter artikulua eta zazpigarren xedapen iragankorra.

Lau. Berridatzi egin da zortzigarren xedapen gehigarria, eta honela geratu da idatzita:

Zortzigarren Xedapen Gehigarria.—*33. artikuluko lehen paragrafoan nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueretarako aurreikusitako ehunekoa aplikatzeko aukerako araubidea*

Nekazaritza eta abeltzaintzako jardueren zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate erraztuaren bidez etekin garbia zehazteko, sortapen-datan 55 urte baino gehiago dituzten zergadunek 2021eko abenduaren



31n indarrean zegoen idazketan erregelamendu honen 33. artikulua lehena paragrafoan aurreikusitako ehunekoak aplikatu ahal izango dute.

Bigarrena: 2025eko uztailaren 1etik aurrerako ondorioekin, aldaketa hau egiten da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudian (Bizkaiko Foru Aldundiaren 2014ko apirilaren 8ko 47/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen araudi hori), eta hona zer aldaketa egiten zaizkion:

Aldatu egingo dira 88. artikuluko 1., 3. eta 4. zenbakiak, eta honela geratuko dira:

«1. Atxikipen-ehunekoaren taula orokorra

Urteko etekina Importe Rendimiento Anual (€)		Ondorengoen kopurua Número de descendientes						
Honetatik Desde	Honetara Hasta	0	1	2	3	4	5	Gehiago Más
0,00	20.000,00	0	0	0	0	0	0	0
20.000,01	20.390,00	7	5	3	0	0	0	0
20.390,01	21.170,00	8	6	4	1	0	0	0
21.170,01	22.010,00	9	7	6	2	0	0	0
22.010,01	23.080,00	10	9	7	4	0	0	0
23.080,01	23.880,00	11	10	8	5	1	0	0
23.880,01	25.040,00	12	11	9	6	3	0	0
25.040,01	27.010,00	13	12	10	7	4	0	0
27.010,01	29.350,00	14	13	11	9	6	2	0
29.350,01	32.120,00	15	14	13	10	8	4	0
32.120,01	35.470,00	16	15	14	12	9	6	0
35.470,01	40.060,00	17	16	15	13	11	8	0
40.060,01	43.730,00	18	17	16	15	13	10	2
43.730,01	47.140,00	19	18	17	16	14	12	5
47.140,01	51.170,00	20	19	18	17	15	13	7
51.170,01	55.850,00	21	20	20	18	17	15	9
55.850,01	60.930,00	22	21	21	20	18	16	11
60.930,01	64.750,00	23	22	22	21	19	18	13
64.750,01	69.050,00	24	24	23	22	21	19	14
69.050,01	73.920,00	25	25	24	23	22	20	16
73.920,01	79.550,00	26	26	25	24	23	22	17
79.550,01	85.420,00	27	27	26	25	24	23	19
85.420,01	90.760,00	28	28	27	26	25	24	21
90.760,01	96.820,00	29	29	28	27	27	25	22
96.820,01	103.500,00	30	30	29	29	28	27	23
103.500,01	111.430,00	31	31	30	30	29	28	25
111.430,01	120.120,00	32	32	31	31	30	29	26
120.120,01	130.140,00	33	33	32	32	31	30	28
130.140,01	141.450,00	34	34	33	33	32	32	29
141.450,01	154.810,00	35	35	34	34	33	33	31
154.810,01	169.550,00	36	36	36	35	35	34	32
169.550,01	187.400,00	37	37	37	36	36	35	33
187.400,01	209.450,00	38	38	38	37	37	36	35
209.450,01	232.180,00	39	39	39	38	38	37	36



Urteko etekina Importe Rendimiento Anual (€)		Ondorengoen kopurua Número de descendientes						
Honetatik Desde	Honetara Hasta	0	1	2	3	4	5	Gehiago Más
232.180,01	Hortik aurrera En adelante	40	40	40	39	39	39	37

3. Taula aplikatzeko arau zehatzak

«1. Etekinak pentsioak edo hartzeko pasiboak badira, eta aplikatu beharreko atxikipen-ehunekoa zehazteko, ez beste ezertarako, ekitaldianzehir pentsiodun edo hartzeko pasiboen titular bihurtu direnek jasotako pentsioen edo hartzeko pasiboen urteko kopurua kalkulatu dira.

Hala ere, zergadunak aukera izango du aurreko paragrafoan aurreikusitako urteko igoera ez aplikatzeko.

2. Etekinak enplegatzaileekiko noizean behin eta eguneroko harremanen ondorioz giza lanetan edo eguneko lansaritan jasotzen dituzten eskulangileen kasuan, taula aplikatzean kontuan eduki beharreko zenbatekoa kalkulatzeko ondoko eragiketa egin behar da: 100ez biderkatu jasotako giza lanaren edo eguneko soldataren zenbatekoa.

3. Arrantza-ontzietako langileek ordainsari gisa, ordainsari osoa zein partziala, arrantzu-balioaren edo haren bolumenaren parte bat jasotzen badute, atxikipenaren ehunekoa Gizarte Segurantzaren Itsasoko Langileen Araubide Berezian daudenen kotizazio oinarriak finkatzeko urtero Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak ematen duen aginduko 2. taldean Bizkairako ezarritako oinarrien arabera kalkulatu da, arrantza-ontzien erregistro gordinetako tona kopurua gorabehera.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa eragotzi gabe, erregistro gordinean 150 tona baino gehiago dituzten inguraketa modalitateko arrantza-ontzietako arrantza teknikarien eta makineriako buruen kasuan, aipatutako oinarriak bikoiztu egingo dira.

Atxikipen-ehunekoa inolaz ere ezin da izan % 2 baino gutxiago.

4. Lanaren etekinen jasotzaileak, epaile baten ebazpena dela bide, konpentsazio-pentsioa eman behar badio bere ezkontideari edo izatezko bikotekideari, horren zenbatekoari atxikipen-ehunekoa kalkulatzeko kontuan hartu beharreko ordainsarien zenbatekoa kendu ahal zaio.

Horretarako, zergadunak murrizketaren berri eman behar dio ordaintzaileari araudi honetako 107. artikuluan ezarri den bezala, bai eta pentsioa ezarri duen epailearen ebazpenaren hitzez hitzezko lekuko-agiria ere.

Erregela honetan ezarritako murrizketa aplikatzeko ezinbestekoa da langileak kontratu mugagabea edukitzea. Gainera, epaileak pentsioa emateko agintzen duen zergaldiaren hurrengo zergalditik aurrera soilik aplikatu ahal izango da.

Erregela honetan ezarritako kasuetan kalkuluaren emaitzako atxikipen-ehunekoa % 2 baino gutxiago bada, % 2 aplikatuko da.»

«4. Langile aktibo desgaituak

Langile aktibo desgaituei artikuluko 1. zenbakian atxikipen-ehunekoen taula orokorra aplikatuko zaie. Dena dela, taula orokorra aplikatuz ateratzen den atxikipen-ehunekoari hurrengo eskalan ageri diren puntuak kenduko zaizkio, langilea egoera hauetako batean badago:

- % 33koa edo handiagoa eta % 65ekoa baino txikiagoa den desgaitasun-gradua duten langile aktiboak.
- 100eko 33ko edo hortik gora eta 100eko 65etik beherako desgaitasun-gradua aitortua izan eta mugitzeko gaitasuna murriztuta daukaten jarduneko langileak. Halakotzat hartuko dira mugikortasun-jardueren mugen azpibaremoan (MJMB) guztira 100eko 25eko edo hortik gorako mugikortasun-muga lortzen dutenak. Az-



pibaremo hori urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuan dago araututa, zeinak desgaitasun-maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen baitu.

- c) % 65ekoa edo handiagoa den desgaitasun-gradua duten langile aktiboak.

Urteko Etekina Importe Rendimiento Anual		Desgaitasun maila Grado de Discapacidad	
Honetatik Desde	Honetara Hasta	4.a) atala Apartado 4.a)	4.b eta 4.c atalak Apartado 4.b y Apartado 4.c)
0,00	25.040,00	9	12
25.040,01	32.120,00	7	12
32.120,01	47.140,00	6	10
47.140,01	55.850,00	5	10
55.850,01	79.550,00	4	8
79.550,01	120.120,00	3	6
120.120,01	187.400,00	2	5
187.400,01	Hortik aurrera En adelante	1	3

XEDAPEN IRAGANKORRA

Xedapen Iragankor Bakarra. — **Salbuespenezko epea, 2025eko zergaldirako, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztuaren aldeko hautapena egiteko eta hautapena ezeztatze, nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueretarako**

1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudiak (Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 8ko 47/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsia) 33. artikuluan adierazitako nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak egiten dituzten zergadunen kasuan, salbuespen gisa, zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztuaren aldeko hautapena eta hautapen horren ezeztatapena (zergaren araudiko 29. artikulua 1. eta 2. apartatuetan eta 30. artikulua 2. apartatua aipatuak), 2025. urterako ondorioak izan ditzaten, 2025eko zergaldiari dagokion pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortuenean adierazi beharko dute hori.

2. Xedapen iragankor honen 1. apartatua aurreikusitakoaren arabera egiten den aukerak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren erregelamenduaren 29. eta 30. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera egindako aukeraren ondorio berberak izango ditu.

AZKEN XEDAPENAK

Azken Xedapenetako Lehenengoa. — **Arauk emateko gaikuntza**

Ogasun eta Finantzen foru-diputatuari ahalmena eman zaio foru-dekretu hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Azken Xedapenetako Bigarrena. — **Indarrean jartzea**

Foru-dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, beronen artikuluetan ezarritako ondorioekin.

Bilbon, 2025eko ekainaren 12an.

Ogasun eta Finantzako foru diputatua,
ITXASO BERROJALBIZ ZABALA

Ahaldun Nagusia,
ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA